

BIZITZAKO KARRERAN

Aupa ta aurrera!

Karrerarik onena

da bizitza bera.

1

Uste baiño gehiago
bizitzan aurrera,
baiña oraindik ezin
amaitu karrera.

2

Nahizta munduan bizi
ehundik gora urte,
karreran bizi behar
azkenera arte.

3

Bizitzako karrera
berez da eskola,
San Pedrok dauka
mugan
jarrita kontrola.

4

Hemen ez dago buruz
ikasi beharrik,
dana irabazten da
biziaz bakarrik.

5

“Bizian gora” dogu
gure ikastola,
bertan dabilenari
on egin daiola!

6

Sasi-eskola zer dan
ez dakigu hemen,
bizitzako karreran
ezin leike eten.

7

Gehiena da bizitzan
bertan ikasia,
horrez gaiñera dogu
Jaunaren grazia.

8

Aprobatuta dogu
guk aurtengo nota,
kalabazak ez dauko
nun susterrik bota.

9

Kopiatzeak ez dau
guretzat balio,
bakoitzak egin behar,
bestelan adio!

10

Hitz hutsak, putzak
dira
gure esamiñetan,
Jainkoak neurtzen
gaitu
gure egiñetan.

11

Laster gara elmugan
jo daigun espriña,
han daukagu zain
Jesus
sari-emoile fiña.

12

Zenbat gora behera ta
batzar ugariak,
danen ordeztan egin
gaurko bazkariak!

13

Anai-arreba danok
hartu zorionak!
Izan merezitako
oporraldi onak!

14

Betoz urte asko ta
birtutez beteak,
karrera ontan ez dau
balio suerteak.

15

Karreraren sartu behar
behin jaio ezkerro,
bitarterik ez dago,
hamar edo zero...

16

*Onak gogoan jaso
eta txarrak parka,
ea nok jartzen dogun
han gorengo marka!*